

HABE-REN ZUZENDARI NAGUSIAK 2022KO ABENDUAREN 20AN EMANDAKO EBAZPENA, PLEGU ADMINISTRATIBOAK ETA PLEGU TEKNIKOAK ONARTUZ, INGURA EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A2 EUSKARA MAILAKO EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA KONTRATATU AHAL IZATEKO.

1

AURREKARIAK

BAT: 2022ko azaroaren 23an HABEren zuzendari nagusiak memoria izenpetu zuen, adieraziz HABEk beharra zuela zerbitzu kontratu bat gauzatzeko **“INGURA EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A2 EUSKARA MAILAKO EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA”** kontratatu ahal izateko.

Horretarako, egun berean, ebazpen bidez hasiera eman zion G23-606 kontratazio espedienteari zerbitzu kontratu bidez, prozedura irekiz eta hainbat irizpideren arabera ikasmaterial digitalak sortzea eta argitaratzea kontratatu ahal izateko.

BI: Kontratazio espediente honek badu bere aurrekontuari dagokion gastua baimenduta eta fiskalizatuta, 2022ko azaroaren 29an.

HIRU: 9/2017 Legearen 116. artikularekin bat, kontratazio-espedientea osatu da eta kontratazio-prozedura horren baldintza teknikoaren plegu-agiria eta klausula administratibo espezifikoaren plegu-agiria osatu dira. Hauek labor labor ondorengoa jaso dute:

Espedientean arrazoitu dira kontratua esleitzeko proposatu diren balorazio-irizpideak, kontratua sustatu duen zerbitzuak horretarako egin duen Memorian. Kontratua esleitzeko prozeduraren aldetik, berriz, 9/2017 legearen 131.2 artikulua dio orokorrean, prozedura irekia jarraituko dela, espedientean ez badago bestelako berezitasunik. Espediente honen bitartez kontratatuko den zerbitzua ez dago erregulazio harmonizatuaren menpe, legeak finkatutako zenbatekoaren langaren azpitik dagoelako (9/2017 legearen 22. artikulua.). Sorta bakarra du kontratu honek, kontratatuko diren lanak ezin baitira sortatan banatu, proiektu osoak batasun bat osatzen du eta ez du zatiketarik onartzen.

Kontratua esleitzeko epearen aldetik, eskaintzak aurkezteko epea 55 egunekoa izango da, parte hartu nahi dutenek denbora izan dezaten eskaintzak aurkezteko, eta 2022ko abenduaren 20an kontratazioaren-profilean lizitazio-iragarkia argitaratzea aurreikusita dago, 2023ko martxoaren amaierarako esleipena egiteko moduan.

Beraz, aurreko guztia ikusita, orain arte esandakoarekin bat, HABEren egitura organikoa ezartzeko onartu zen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren bitartez aitortzen zaizkidan eskumenak baliatuz, eta 9/2017 Legearen 117. artikuluari jarraikiz,

EBATZI DUT:

Lehena.- Espediente honen xede diren lanak kontratatzeke eranskin gisa ageri diren plegu administratibo espezifikoak eta plegu teknikoak onartzea, “**INGURA EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A2 MAILAKO EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA**” gauzatu ahal izateko zerbitzu kontratua gauzatzeko.

Bigarrena.- Prozedura irekia jarraitzea kontratista aukeratzeko eta kontratua esleitzeko, 9/2017 Legearen 131.2 artikuluan jasotako irizpidearekin bat, interesatuta dagoen edozein operadore aurkez dadin.

Hirugarrena.- Aipatutako kontratazio espedientea eta kontratua burutzeko erabili beharreko diru-kopurua onartzea, guztira 80.196,48 .- euro (BEZa barne). Zenbateko hori oinarritzko aurrekontua izango da. Bost hilabetekoa izango da kontratuaren epealdia.

Laugarrena.- Kontratazio mahaiaren kideak izendatzea, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera:

-Mahaiburua: Itziar Azurza Sorrondegui andrea, HABEko Aholkularitza juridikoko eta pertsonaleko arlo- arduraduna (EHAA aldizkari ofizialean 2019/05/14an argitaratutako 2019ko apirilaren 23ko Ogasun eta Finantza sailburuaren Agindua).

-Kontratazio-organoak izendatutako kidea: Eskarne Lopetegi Zalakain andrea, HABEko Metodologia eta Edukien arlo-arduraduna. Ordezkoa: Esther Isasa Gaskue andrea, Metodologia eta Edukien arloko teknikaria.

-Mahaikide-Idazkaria: Gorka Estevan Mugerza jauna, HABEko Aholkularitza juridikoko teknikaria.

Bosgarrena.- G23-606 kontratazio espedienteko esleipen-prozedurari hasiera ematea.

Seigarrena.- Euskadiko kontratazio plataforman iragartzea kontratazio espediente honen hasiera, argitaratzea plegu administratibo espezifikoak eta plegu teknikoak eta zerbitzu kontratu honetan interesa izan dezaketen enpresei deialdi irekia egitea.

Donostian, 2022ko abenduaren 20an.

Izenpetua: Jokin Azkue Arrastoa.

HABEren zuzendari nagusia.